

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **Aisialdi-guneetara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko gidaridun ibilgailuak (gautxori) kontratatzeako diru-laguntzak arautzeko oinarriak behin betiko onartzea**

Gaiari dagokion espedienteari ez zaionez alegaziorik aurkeztu, osorik argitaratu da, indarrean sartu dadin.

#### **Aisialdi-guneetara zerbitzu publiko edo enpresa pribatu bidez gidaridun ibilgailuak kontratatzeako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak (gautxori)**

##### **1. artikulua. Oinarriak**

Arratzua-Ubarrundia udalerrria, mila biztanle eskasekoa, hamaika herrigunetan sakabanatuta dago, eta ez du gaueko aisialdirako gunerik. Hori dela eta, biztanle gehiago dituzten herrietara joan behar dute gure herritarrek, entretenimendu, zinema, jatetxe, musika-lokal, antzoki eta abar desberdinak eskaintzen baitizkiete, normalean auto partikularrean, eta horrek istripuak izateko arriskua dakar.

Udal honek, gure herritarren bizi-kalitatea biztanle gehiagoko beste udalerrri batzuetakoarekin parekatu nahi duenez, gaueko aisialdi segururako sarbideari dagokionez, horietan ez baita beharrezkoa autoa hartzea lokaletara joateko edo etxera itzultzeko, laguntza-lerro hau onartu du beste herri batzuetara gaueko ordutegian aisialdirako denboraz gozatzerara joan nahi duten pertsonak ibilgailu bat kontratatuz joan eta itzuli ahal izan daitezen, horrela, istripuak saihestuz.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 14.4 artikulua aukera ematen die toki-erakundeei toki-erkidegoaren intereserako garatzen den eta eskumen propioen, transferituen edo eskuordetuen barruan ez dagoen edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio gauzatzeko, baldin eta bikoiztasun-kasurik gertatzen ez bada eta erakunde osoaren ogasunaren finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez bada.

##### **2. artikulua. Helburua**

Diru-laguntzaren helburua da Arratzua-Ubarrundiako herritarrek Arabako Lurralde Historikoaren barruan gaueko aisialdia duten herrietara aisialdi horretaz gozatzerara modu seguruan joan ahal izatea. Horretarako, gidaridun garraio-zerbitzu bat kontratatuko da, zerbitzu publikokoa zein enpresa partikularrekoa, joan-etorrietan istripuak izateko arriskua saihesteko.

##### **3. artikulua. Lege-araubidea**

1. Deialdi honen barruan ematen diren diru-laguntzak, honako oinarri hauez gain, ondorengo araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzen Lege Orokorraren araudia onartzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

- Arratzua-Ubarrundiako Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.
- Aurrekontua gauzatzeko oinarriak.

2. Ematen diren diru-laguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, deialdi ireki baten bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Diru-laguntzak printzipio hauen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Eraginkortasuna finkatutako helburuak betetzean.
- Eraginkortasuna baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

3. Jarduera, programa, proiektu edo inguruabar berezi baterako diru-laguntza eskaera bat aurkezte hutsak berekin dakar oinarri hauek ezagutzea eta onartzea: Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, bai eta diru-laguntza mota horiei aplikatu dakizkiekeen arau guztiak ere, zuzenekoak zein subsidiarioak.

#### **4. artikulua. Aurrekontu-hornidura**

Arratzua-Ubarrundiako Udalak diru-kopuru bat bideratuko du ekitaldi bakoitzean planteatutako eskaerei erantzuteko, 4412.480.008 aurrekontu-partidaren kontura. Ezin izango da diru-laguntzarik eman aurrekontuko diru-izendapenik gabe.

#### **5. artikulua. Jasotzaileak**

Onuradunak, udalerrian erroldatutako herritarrak izango dira.

#### **6. artikulua. Eskatzaileek bete beharrekoak**

• Arratzua-Ubarrundiako udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzintasunarekin. Antzintasunari eutsi beharko zaio eskabideak ebatzi arte.

• Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea diru-laguntzaren behin betiko ebazpena eman arte, ondorio horietarako zuzenbide publikoko diru-sarreretatik eratorritako edozein zor kontuan hartuta, geroratuta, zatikatuta edo gauzatuta dauden zorrak edo zehapenak izan ezik. Adingabeen edo legez ezgaitutako pertsonen kasuan tutoretza betetzen duten pertsonak ere bete beharko dute betebeharrak hori.

#### **7. artikulua. Diruz lagungarri den gastua**

Diruz laguntzeko modukotzat joko da ibilgailu bat gidariarekin (zerbitzu publikoa edo enpresa pribatua) gaueko 23:00etatik goizeko 7:00etara kontratatzeagatik sortzen den gastua.

Pertsona eta hilabete bakoitzeko gehienez 4 bidaiak/ibilbide lagunduko dira diruz.

Bidaiaren/ibilbidearen jatorria edo helmuga udalerriko herrietako bat izan beharko da.

Gau berean egiten bada joan-etorria, bi bidaiak/ibilbidetzat hartuko da.

Ibilgailua hainbat pertsonak partekatzen badute, horietako baten kostua baino ezin izango da diruz lagundu.

#### **8. artikulua. Eskaerak eta dokumentazioa**

1. Eskabideak I. eranskineko eredu ofizialean aurkeztuko dira, hilerok, eta letra larrietan bete beharko dira, modu argian eta irakurtzeko moduan. Eskabideak tutoreek sinatuko dituzte, adingabeak edo legez ezgaituak badira.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskatzaile bakoitzak hilean eskaera bat aurkeztu beharko du, hilabete horretan egindako bidaiak/joan-etorrien zerrendarekin.

3. Eskatzeko modua:

— Aurrez aurre, udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00etara.

— Telematikoki, webguneko Egoitza Elektronikoaren bidez: [www.arratzua-ubarrundia.eus/eu](http://www.arratzua-ubarrundia.eus/eu).

#### 4. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Enpresaren faktura edo tiketa, fakturarekin parekagarria, egindako ibilbidearen eguna, ordua, jatorria eta helmuga jasotzen dituen.
- Diru-sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBAN, titularra adierazita, diru-laguntzaren onuraduna ez bada.

#### 9. artikulua. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Aurkeztutako dokumentazioan zerbait falta bada, eskatzaileari aurkez dezan eskatuko zaio, 10 eguneko epean, eta adieraziko zaio epe horretan ez badu aurkezten, eskaera bertan behera geratuko dela, aurrez ebazpena egin ondoren.

Diru-laguntzak alkatetzak emango ditu hilero, aurrekontu-partida agortu arte.

#### 10. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzak, egindako gastuaren ehuneko 40koak izango dira.

#### 11. artikulua. Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

Deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak bateragarriak dira helburu bererako jasotako beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin, betiere jasotako diru-laguntza guztien baturak egindako gastua gainditzen ez badu.

Lortutako diru-laguntzen baturak aipatutako zenbatekoak gainditzen baditu, gainfinantzaketaren zenbatekoan murriztuko da diru-laguntza, eta onuradunak dagokion zenbatekoa itzuli beharko dio udalari.

#### 12. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

Diru-laguntzak hilabeteko epean ordainduko dira, ebazpena onartzen denetik.

#### 13. artikulua. Laguntzen kontrola eta justifikazioa

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan 7. paragrafoan xedatutakoaren arabera, diru-laguntza horiek emateko, eskatzaileak edo, hala badagokio, tutoreak deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko da aldez aurretik.

Hala ere, onuraduna behartuta dago udalari jakinaraztera kontzeptu horretarako lortzen dituen beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortzen dituen unean bertan.

Laguntzak jasotzen dituztenei aplikatu dakizkiekeen itzulketak, zehapenak eta erantzukizunak arautzeko araubidea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arratzua-Ubarrundiako Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzan ezarritakoa izango da.

#### 14. artikulua. Zigor erregimena

Arau-hauste eta zehapen administratiboei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 52. artikuluan eta hurrengoetan eta Udalak onartutako diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta ordenantza horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

#### 15. artikulua. Legeria gehigarria

Oinarri hauetan aurreikusi ez diren gaietan, diru-laguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta hori garatzen duen erregelamenduan xedatutakoari jarraituko zaio.

Duranan, 2022ko irailaren 26an

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*

I. ERANSKINA  
ANEXO IAISIALDI-GUNEETARA JOATEKO GIDARIDUN IBILGAILUA KONTRATATZEKO  
DIRULAGUNTZA-ESKAERA. GAUTXORI  
SOLICITUD DE AYUDA PARA CONTRATAR UN VEHICULO CON CONDUCTOR/A  
PARA ACUDIR A LUGARES DE OCIO. GAUTXORI

IZENA ETA ABIZENAK EDO IZEN SOZIALA NOMBRE Y APELLIDOS O RAZÓN SOCIAL		NAN-AIZ-IFZ DNI-NIE-NIF	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK) REPRESENTANTE (NOMBRE Y APELLIDOS)		NAN-AIZ-IFZ DNI-NIE-NIF	
KOMUNIKAZIORAKO-JAKINARAZPENETARAKO DATUAK DATOS PARA LA COMUNICACIÓN- NOTIFICACIÓN			
Kalea Calle	Zk. Nº	Solairua Piso	Herria Pueblo
Posta kodea Código Postal	Udalerría Municipio	Lurraldea Provincia	
Helbide elektronikoa Correo electrónico	Telefono zk. Nº Teléfono	Mugikorraren zk. Nº móvil	

Jakinarazi:  Interesdunari  Ordezkarari / Modua:  Posta bidez  Posta elektronikozNotifikar a  Persona interesada  Representante / Notifikar por  Correo postal ElectrónicamenteAZALTZEN DU:  
EXPONE

Aisialdi-guneetara joateko zerbitzu publiko edo enpresa pribatu bidezko gidaridun ibilgailuak kontratatzeke dirulaguntza-deialdiaren (GAUTXORI) berri izan duela.

\_\_\_\_\_hilabeteen zehar, ondorengo bidaia/joan-etorriak egin dituela:

Jatorria	Helmuga
----------	---------

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.

Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak hori tutoreei ezarriko zaie.

Adierazten du  ESKATU DUELA /  EZ DUELA ESKATU, helburu bererako beste dirulaguntzaren bat, erakunde honetan:..... eta  JASO DUELA /  EZ DUELA JASO, zenbatekoa ondorengo izank:.....€.

Que está enterado/a de la convocatoria de subvenciones para la contratación de vehículos con conductor/a, de servicio público o empresa privada, para acudir a lugares de ocio (GAUTXORI).

Que durante el mes de \_\_\_\_\_, ha realizado los siguientes viajes/ trayectos:

Origen	Destino
--------	---------

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.

Que está al corriente en sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento. En caso de personas menores o tuteladas, esta obligación se extiende a las personas que ejerzan la tutela.

Y declara que  SI /  NO, ha solicitado otras subvenciones para el mismo fin a ..... y que  SI /  NO ha obtenido las mismas, por importe de.....€ en su caso.

**ESKATZEN DU  
SOLICITA**

Eskaera hau kontuan hartzea, aipatutako deialdia ebazterakoan, eta, hala badagokio, dagokion diru-laguntza ematea.  
*Que se le tenga en cuenta a la hora de resolver la citada convocatoria, otorgándole la subvención que en su caso corresponda.*

**AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA  
DOCUMENTACIÓN APORTADA**

Enpresaren faktura, edo fakturaren baliokidea den ticket-a, bertan jasota: egindako joan-etorriaren eguna, ordua eta jatorria eta helmuga.  
*Factura, o ticket asimilable a factura, de la empresa en el que conste día, hora y origen y destino del trayecto realizado*  
 Diru-sarrera egitea eskatzen den kontuaren banku-entitatea eta IBANa. Titularra, diru-laguntzaren onuraduna ez den beste norbait bada, hala adierazi behar da.  
*Entidad e IBAN de la cuenta en la que se desee que se realice el ingreso indicando titular en caso de que sea diferente a la persona beneficiaria de la subvención.*

**DATA ETA SINADURA:****FECHA Y FIRMA:**

DATUEN BABESA	
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legezketasuna	Datuen tratamendua legezkoa da legeak hala aginduta eta/edo interesdunen baimenarekin.
Hartzaileak	Bildutako datuak Diru-laguntzen Datu-base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da beste lagapenik izango, legezko betebeharra izan ezik.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak baliatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalaren aurrean. Uribea kalea 12, 01520 Durana arduradun gisa. Bere datuen kontserbazioa legez agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak egiteko.

PROTECCION DE DATOS	
Responsable	Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia
Finalidad	Concesión de subvenciones para la promoción de diversas actividades
Legitimación	El tratamiento de datos queda legitimado por obligación legal y/o el consentimiento de las personas interesadas
Destinatarios	Los datos recogidos se cederán a la Bases de Datos Nacional de Subvenciones. No habrá más cesiones salvo obligación legal
Derechos	La persona interesada podrá ejercer sus derechos ante el Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia. C/ Uribea, 12, 01520 Durana como responsable. La conservación de sus datos será la prescrita legalmente, según la finalidad de los mismos. Los datos no serán utilizados para elaborar decisiones automatizadas.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)